

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Komunikazio-kanalei dagokionez, gure zerbitzua bezeroengana helarazteko webgune baten bitartez haiekin harremanean jarriko gara. Baita sare sozialen, instagram, gmail eta deien bidez ere. Proiektua aurrera eramatekotan, aurkezpen ofizial bat egingo genuke telebista, irratia edo egunkaria bezalako komunikabideetan.

Alde batetik, banaketa-kanalak, izango dugun banaketa kanpo-kanalekoa izango da, gu sortuko dugu fertilizantea, baina materia organikoa transportatzeko eta produktuak nekazarieei eta merkatueei banatzerako orduan, garraio enpresa baten laguntza beharko dugu. Enpresa hori azpikontratatuko ditugu jarduera hau egin dezaten.

Bestetik, denda eta negozio fisikoetan salduko ditugu gure produktuak. Hasieran, gure kontuz salduko genituzke bertako merkatuetan, baina merkatuan segmentatu ahala, beste hainbat salmenta-kanaletan jardutea pentsatu dugu. Adibidez, km0ko sekzioak dituzten supermerkatuetan edota erosleen-kooperatibekin kooperatuz.